

33. FITXA. Mentor Ikasgela Programaren mendeko Lanbide Orientazioko Unitateak (LOU) sortzeko laguntzak

Nori zuzenduta: Toki-erakundeak, 7/1985 Legearen 3. artikulua arabera; halaber, udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko toki-erakundeak, autonomia-erkidegoek eratu edo aitortuak, eta lurralde-mailako toki-erakundeen mendeko erakunde publikoak.

Sartzeko esteka: [Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)

Eremuak: Hezkuntza eta lanbide heziketa, IKT

Zenbatekoa: 2.850.000 € (28.500,00 €ko 100 modulu)

Aurkezteko amaiera-data: 2022/09/02

Laburpena

Deialdi honen helburua da **gehienez ere Lanbide Orientazioko 100 Unitateren sorrera** finantzatzea, tokiko lurralde-erakundeen eta tokiko lurralde-erakundeen mendeko erakunde publikoen (70 unitate) eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen (30 unitate) mende.

Lanbide Orientazioko Unitate (LOU) horien helburua da [Mentor Ikasgela](#) mota berezi bat abian jartzen laguntzea, Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioaren prestakuntza irekiko programaren sarean sartzeko. Asmoa da orientazio profesionaleko zerbitzu espezifiko bat ematea, eta ekimen horren jarduerak helburu hauek izango dituzte:

- Prestakuntza hobetze aldera, formakuntza-eskaintzei eta -ibilbideei buruzko informazioa eta aholkuak ematea. Era berean, sarbidea errazten zaie artatutako pertsonen prestakuntza-premiei erantzunik onena ematen dieten baliabideei.
- Lan-esperientziagatik edo prestakuntzako beste bide ez-formal eta informal batzuegatik eskuratutako gaitasunak egiaztatzeko prozedurei buruzko informazioa ematea, orientatzea, eta izen-emate eta laguntza lanak egitea.

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea **2022ko irailaren 2ra arte** izango da. Aurreko atalean deskribatutako jarduketak gauzatzeko epea urte natural batekoa izango da, dirulaguntza sartzen den unetik zenbatzen hasita.

Laguntzen zenbatekoa eta laguntza motak

Deialdiak **2.850.000,00 €-ko** zuzkidura du, eta **28.500,00 €-ko 100 modulutan banatuko da**. Modulu horiek emandako laguntzen gutzizko kopurua osatuko dute.

LOUen ezaugarri orokorrak

Lanbide Orientazioko Unitate (LOU) gisa definitzen da honako helburu hauetarako sortzen den Mentor Ikasgela mota berezi bat:

- 18 urtetik gorako pertsonentzako banakako arretan oinarritutako **lanbide orientazioko berariazko zerbitzu baterako sarbidea erraztea**, haien beharretara eta kokatuta dauden lurraldearen errealitatera egokituta. Helburua da haien interesak eta izan ditzaketen arau-eta lanbide-ibilbideak identifikatzea, euren prestakuntza hobetze aldera.
- Lan-esperientziagatik edo beste bide ez-formal eta informal batzuegatik eskuratutako gaitasunak egiaztatzeko prozedurei buruzko **informazioa ematea, orientatzea, eta izen-emate eta laguntza-lanetan parte hartzea**.

Lanbide Orientazioko Unitatean (LOU) **ezagutza teknikoak dituen profesional bat egon behar da**. Ezagutza horiek beharrezkoak dira lanbide-informazioko eta prestakuntza-ibilbideei lotutako orientazioko funtzioak betetzeko; profesional horrek eskumena izan beharko du, zerbitzua kudeatzeko plataforma birtualak erabiltzeko unean. Halaber, trebetasunak ere izan beharko ditu, inguruko pertsonen eta erakundeen arteko hedapen proaktiboa egiteko, gaitasunak egiaztatzeko prozeduran izena emateko eta parte hartzeko. Profil horrek oinarrien III. Eranskinean jasotakoa bete beharko du.

Orientatzeko eginkizun horren arduradunak Lanbide Orientazioko Unitateko (LOU) administratzaile lanak egingo ditu eta, hala badagokio, banako prestakuntza-ibilbidea taxutzeko prestakuntza-eskaintza egokienera bideratzeko prozesua erraztuko du.

LOUek garatu beharreko jarduerak

Zabalkundearekin, erakartzearekin eta erregistroarekin laguntzearekin lotutako jarduerak, gaitasunak egiaztatzeko prozeduran:

- Lan-esperientziaren bidez, edo beste bide ez-formal edo informal batzuen bidez, eskuratutako lanbide-gaitasunak egiaztatzeko interesa izan dezaketen pertsonak identifikatzea.
- Inguruan lana duten eta langabeak diren pertsonen artean hedatzea.
- Gaitasunak egiaztatzeko prozeduraren baitako erregistro-prozesuan laguntzea, eta eskabideekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa betetzen eta curriculum egiten laguntzea.
- Gaitasunak egiaztatzeko prozeduraren ebaluazio-fasea prestatzea ahalbidetzen duten laguntza-tresnen erabilerari buruzko aholkularitza eskaintzea.
- Gaitasunak egiaztatzeko prozedura amaitu ondoren, herritarrek eskura dituzten prestakuntza-ekintzak identifikatzea eta horiei buruzko aholkuak ematea.
-

Prestakuntza hobetzeko eskaintzei eta prestakuntza-ibilbideei buruzko **informazioarekin eta aholkularitzarekin** lotutako jarduerak:

- Informazioa ematea, lanbide heziketako sistemari lotutako prestakuntza-aukerei buruz, eta herritarrentzat interesgarriak diren bestelako prestakuntza-ekintza batzuei buruz.

Jarduera horretan, erakunde onuradunak mugarri bat bete beharko du: gauzatzeko urtebete naturaleko epean, **gutxienez, 350 pertsonari laguntzea** erregistratzen eta/edo, hala badagokio, gaitasunak egiaztatzeko prozeduran izena ematen.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira, zalantzarik gabe, Lanbide Orientazioko Unitatearen (LOU) funtzionamenduari lotutakoak; horien artean, honako hauek sartu ahalko dira:

- a) Lanbide Orientazioko Unitateko (LOU) **orientatzailearen ordainsariei** dagozkien gastuak.
- b) **Inbentarioan sartzerik ez dagoen materialak** (bulegoko materiala, paper-dendako materiala, tonerrak, software pakete estandarrek, etab.) **erosteak** eragindako gastu arruntak.
- c) Lanbide Orientazioko Unitatearen (LOU) **zabalkundeak, publizitateak eta propagandak** eragindako gastuak.
- d) **Ekipamendu** informatikoak, inprimagailuak, monitoreak, datu-transmisiokoak eta abar **mantentzeari** dagozkion gastuak, horiek erostea barne hartu gabe (alokairua, leasinga edo rentinga bezalako merkataritzako kontratu-irudiak baliatzeko aukera dago).
- e) LOUra bideratutako **espazio fisikoa** (argia, elektrizitatea, ura, etab.) **mantentzeko** gastuak. Laguntzari aplikatu ahal izango zaion gehieneko ehunekoa, zeharkako gastuei dagokienez, ezin izango da laguntzaren % 10 baino handiagoa izan.

Bestelako informazioa

Erakunde onuradunek **eskabide bakarra** aurkeztu ahal izango dute, izena emateko formulario baten bidez. Formulario hori bide telematikoz eskuratu ahal izango da [Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren](#) egoitza elektronikoan: I-A Eranskineko eta, hala badagokio, I-B Eranskineko eskabide ereduetan deskribatzen dira. Eskabide hori Lanbide Heziketako Idazkaritza Nagusiari zuzenduko zaio, eta erakundearen legezko ordezkariak aurkeztu eta sinatuko du digitalki.

Beste edozeinekin **bateragarriak diren laguntzak**, helburu eta xede bererako, beste administrazio publiko batzuek edo beste erakunde publiko nazional, autonomiko edo lokal batzuek ezar ditzaketenak; betiere laguntza guztien baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostu osoa.

Onuradunak **proiektuaren % 50 azpikontratatu** ahal izango du gehienez, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan ezarritakoa betez.